

KANALAK

Kanalak gure proiektua zabaltzeko baliabide eraginkorrenak dira. Gure bezeroei proiektua helarazteko, honela, merkatu-segmentura iristea lortzen da. Horretarako, komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak erabiliko ditugu bezeroekin komunikatzeko. Bost fasez osatuta daude, pertzeptzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoak.



Kanalei dagokionez, gure kanala zeharkakoa dela aipatu behar da. Gazteen eta enpresen artean bitartekari lanak egingo ditugulako (gmail, telefonoz....) Horretarako, kanal propioetatik baliatuko gara. Gure kasuan kanala online da, hau da, web gune bat da gure proiektuaren oinarria. Web-gunearen bidez, adieraziko dizkiegu gure lan proposamenak bezeroei.

Pertzeptzioaren bidez gure bezeroek gure proiektuarekiko duten pertzeptzioa areagotzea da helburua. Gure bezeroengana iristeko publizitateaz baliatuko gara. Sare sozialetan iragarkiak argitaratuko ditugu ezagutzera emateko, herrian zehar kartelak itsatsiko ditugu, eskuorria banatuko ditugu, informazioa zabalduz eta egunkarietan ere albisteak argitaratuko ditugu gure proiektuaren berri ematen. Horrez gain, kolaboratuko dugun enprekin zuzenean gu jarriko gara kontaktuan, telefono, g-mail edo sare sozialen bitartez adibidez.

Ebaluazioaren fasean bezeroak gure balio proposamena baloratuko dute. Gure web gunean atal bat irekiko dugu gure bezeroek beraien iruzkinak utzi ahal izateko. Horrela, beraien iritzia eman ahalko dituzte gure enpresari buruz eta jaso dituzten lan egoerari buruz. Bien bitartean, beraien lana esperientziak partekatuko dituzte gurekin eta gure web gunea jarraitzen dutenekin. Horrela, oraindik gurekin kontaktuan jarri ez direnak erakarriko dituzte. Hortaz gain, hobetzeko kritikak jasotzea guretzat oso lagungarria izango da proiektua hadnitzen eta hobetzen joateko.





Erosketan eskaintzen dugun proiektua eskuragarri jarri behar diegu gure bezeroei. Gazteak diren gure bezeroak web-gunearen bidez lortuko dute lana eta enpresei berriz, langileak eskainiko dizkiegu. Bi bezeroiei lana erraztuko diegu, gazteei lana aurkitzeko bide errazagoa eta enpresei lan eskeintzen publizitatea egingo diegu.

Ondoren, entregatuko dugun zerbitzua zeharkoa izango da bitartekariak garelako, gazteek lan eskaera egiteko aukera edukiko dute, galdetegi baten bitartez, ondoren, beraiekin kontaktuan jarriko gara atxikitu zaien lan postuaren berri emanez.

Azkenik, salmenta ondorengo fasean baliteke beste zerbitzuren bat behar izatea bezeroek. Adibidez, webgunearekin lana lortzeko nahikoa ez bada, enpresekin harreman zuzenak edukitzeko aukera emango diegu. Web-orriaren bidez lortuko dute bezeroak zerbitzua eta salmentaren ondorengo kudeaketa.

Laburbilduz, aipatu dugun bezala, gure zerbitzua zeharkakoa da, bitartekariak garelako, eta zerbitzu horretaz baliatuko gara gure enpresa ideia aurrera eramateko. Horretarako, gure bezeroei nola zuzenduko garen behatu dugu. Eta azaldutako bide horiek jarraituz eramango dugu gure enpresa aurrera.